BESTELAKO XEDAPENAK

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

489

EBAZPENA, 2015eko urtarrilaren 22koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariarena, Médicos del Mundo erakundeak 2009ko lankidetza proiektuentzako laguntzak emateko deialdiaren barruan aurkeztutako «Fortalecimiento del Sistema de Prevención y Tratamiento del VIH/SIDA en el Distrito de Matola (Mozambique)» proiektuari uko-egiteko eskaera onartzen duena.

, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2009ko abenduaren 29ko Aginduaren bidez, Garapena eta Lankidetza Sustatzeko Fondoaren kontura diru-laguntzak ematen zaizkie 2009. urteko proiektuei. Ebazpen horren bidez, Médicos del Mundo erakundeari 116.682 euroko diru-laguntza eman zitzaion, «Fortalecimiento del Sistema de Prevención y Tratamiento del VIH/SIDA en el Distrito de Matola (Mozambique)» proiektua gauzatzeko.

Erakunde horrek, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari 2014ko urriaren 3an bidalitako komunikazioan, hirugarren ordainketari partez uko-egiteko eskaera aurkeztu zuen.

Koordinazio Teknikoaren Zerbitzuak, eskaera aztertu ondoren, erakunde onuradunak uko-egiteko aurkeztutako eskaeraren aldeko txostena egin zuen.

Garapena eta Lankidetza Sustatzeko Fondoaren kargurako proiektuetarako laguntzak arautzen dituen otsailaren 27ko 34/2007 Dekretuaren 28. artikuluko 1. paragrafoak ezarritakoaren arabera, erakunde eskatzaileak proiektuaren aurreikusitako garapenean funtsezko eragina izan dezakeen edozein gorabehera jakinarazi beharko dio aldez aurretik Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzari. Horrekin batera, baimen-eskaera bidali beharko dio proiektuan egin nahi diren aldaketak gauzatu aurretik, eta aurrekontuan dituen ondorioak zehaztu.

Hala ere, proposatutako aldaketak onartzeko eskumenari dagokionez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu, arautu eta jardunean hasi ondoren (ekainaren 19ko 5/2008 Legea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duena; martxoaren 23ko 95/2010 Dekretua, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren antolaketa eta funtzionamenduko erregelamendua onartzen duena; azaroaren 23ko 310/2010 Dekretua, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren jarduerak abiaraztea arautzen duena), aipatutako eskumena eta, oro har, laguntza horiek kudeatzeko behar diren ebazpenak ezartzekoa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariari dagokio.

Horren ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Médicos del Mundo erakundeak honako proiektu honi uko egiteko aurkeztutako eskaera onartzea: «Fortalecimiento del Sistema de Prevención y Tratamiento del VIH/SIDA en el Distrito de Matola (Mozambique)». Lankidetza proiektuentzako laguntzak emateko 2009ko deialdiaren barruan aurkeztu zen proiektua.

Horren ondorioz, erakundeak hirugarren ordainketatik justifikatu gabeko kopurua itzuli beharko du, hau da, 1.400,14 euro.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka, gorako errekurtsoa jarri ahal izango zaio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren lehendakariari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera kontatzen hasita. Gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu eta hiru hilabete igarota oraindik ez bada ezer ebatzi, errekurtsoa ez dela onartu ulertu beharko da, eta administrazioarekiko auzietako bidea irekiko da.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko urtarrilaren 22a.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria,
PAUL ORTEGA ETCHEVERRY.